

MAHAI INGURUA

Bertsolaritza, formarik gabeko heziketari buruz.

Adolfo Rodriguez Bornaetxea.- Hemen gaudenok, behintzat he-
men gaude eta ia ia ezagunak gara zeren aste osoan zehar aurpegi
berdintsuak izan ditugu eta orduan badakigu bakoitzak zer esan duen
eta zeintzuk falta diren. Hain zuzen, Xarritton ez da etorri, ko-
txearen problemengatik, eta hemen gaude gutxi gorabehera astean ze-
har agertu garenok.

Zera gertatzen zaigu: Gaur mahai ingurua, ez borobila ikus-
ten duzuenez, mahai ingurua eta ihardunaldiek zeukaten tituloaz
hitzegiteko "Bertsolaritza, formarik gabeko heziketa", hain zuzen.

Orduan, hemen bertsolariok alde batetik, eta gero baita he-
ziketa edo hezkuntza aldetik ibiltzen garenok ere, nahiko berri-
tsuak omen gaudenez, hobe izango litzateke adar batzuk jartzea,
bestela gertatuko zaigu lehengo batean bezala Amurizarekin... ha-
si ginen, eta hasi... eta ia ia bukatu ez. Azkenean denok erabil-
tzen bait dugu oso ongi mingainaren herramienta, horiek esaten du-
ten bezala.

Ardatzak markatzeko pixka bat, nik ez dakit zer izango li-
tzatekeen zuzena: edo galderak bota edo pixka bat esplikatu non-
dik dihoan asmo hori, zergaitik antolatu egin ditugun horrelako
ihardunaldiak, eta gero bakoitzak hitzegin dezala horko rollotaz
ea zer daukan aportatzeko, edo zer ekarpen botako lukeen mahai
gainera.

Nik esan dizuet gutxi gorabehera zergaitik bururatu zitzazkigun, Zorroagako Fakultatean eta Pedagogia Sailean, hain zuzen, horrelako ihardunaldiak, eta gero denon artean, ez bakarrik hemen gaudenok, baizik eta denon artean, aztertuko dugun pixka bat hemen azaldu dena edota ikusten badugu astuna dela eta ez dela merezi edo beste gauza asko interesgarriagoak dauzkagula gure buruetan, botako ditugu eta kitto, ea azaltzen ditugun gauza guztiak behintzat argi geldi daitezen.

Nik ihardunaldi hauek arrazoi batengatik prestatu nituen: ikusten dudalako oso inportantea dela Euskal Herri mailan zer metodologia erabiltzen dugun gauzak aztertzeko eta hain zuzen, gure gizartean jazotzen diren gertakizun guztiak esplikatzeko. Askotan egiten duguna kanpotik ibilitako zientziak -artea eta abar- mekanikoki aplikatzea da.

Aspalditik gertatzen dena zera da: Zientzia edo gauzak ulertzeko edo esplikatzeko zientzia moeta konkretu bat nagusitu dela: ikuspegi arrazionala deritzana. Ikuspegi arrazional hau, gizarte mailan behintzat, ez pentsakera mailan, Frantzian iraultza izan zenean nagusitzen hasi zen. Hortik sortzen dira ikuspegi gero eta finkatuagoak eta ikuspegi horiek oinarri bezala hartuz, gauza guztiak ulertzeko zientzia berri batzuk sortzen dira, zientzia arrazionalak.

Gizartea bera aldatzen da momentu horietan eta oso kurioso da ikustea nola instituzio desberdinak azaltzen diren. Alde bate-tik, betidanik iraun egin du hezkuntzak berak edo irakaskuntzak, betidanik eroak eduki ditugu gure artean, betidanik delinkuente deritzatenak... baina Frantzian Iraultzan badauzkagu eroetxeak eta erotasunaren kontzeptua agertzen da. Badaukagu irakaskuntza-ren egitura konkretuki eta irakaskuntza bera Estatuak hartzen du bere kontu. Delinkuenteentzako erreformatorioak eta abar dauzka-gu. Dena instituzionalizatzen da.

Gizartea bera aldatzen da. Bere espazioz eta bere barrengo egituraz aldatzen da... Bere espazioa esaterakoan ez dut esan nahi espazio fisiko aldetik, baizik eta harreman berri batzuren aldetik. Zer esan nahi dut horrekin?, ba, begira hartuko dugu hasiera batean espazio fisikoa bera: hiri bat. Hiria edo herria, Amurizak esaten zigun bezala, hasiera batean zera zen, leku bat, azkenean jende guztia bizitzeko eta jendeek elkar ezagutzen zuten eta oso leku aproposa zen harremanak izateko. Baina hori aldatzen da eta hiria jaio zenean, abenidak azaltzen dira eta beste gauzak azkenean transito lekuak azpimarratzeko.

Familia bera aldatzen da. Etxeak ez dira hain haundiak eta gero eta txikiagoak izango dira transitoko leku horien barruan. Familia monogamikoa deritzana sortzen da, familia patriarkala desagertuz. Gauza guzti horiekin klasifikazioa, sailkapena arrazionalizatu beharra agertzen da, guk arrazionalismoa deitzen duguna.

Hortik zientzia moeta berezi bat, gizartean ibiltzeko metodologia moeta bat etorri zaigu. Horretaz baliatuz egin da irakaskuntza osoa leku guztietan eta Euskadin baita ere. Baina Euskadin gertatzen dena da ez dela gertatu beste lekuetan bezala arrazionalismoaren, ez dakit nola esango nukeen nik, arrazionalismoaren itzala hain haundia izatea. Eta familia monogamikoa bera ez da agertu orain dela gutxi arte eta familia patriarkalak kristoren importantzia izan du. Adibidez, familia monogamikoaren barruan ulertuko genuke hautzaroaren inportantzia. Familia patriarkal batean hori ez zen ikusten, ez zuen esistitzen guk hirian esaten dugun hautzaro horrek edo adoleszentziak edo horrelako gauzek. Kontzepto guzti horiek orain dela denbora gutxikoak dira eta geuk erabiltzen ditugu, zientifikoek bezala, azpikatzeko gaur adibidez, irakaskuntzan gertatzen diren gauza guztiak.

Zer behar dugu guk gure artean daukaguna, gure eskuetan daukaguna, gure euskara, gure irakaskuntza, gure gizartea esplikatzeko?. Igoal, kanpoko metodologia arrazional hori pixka bat aztertu eta ikustea ea bere ondorioetan komenigarri den edo egokia den guretzako. Eta nola aztertuko genuke?. Begira ezazue, ez dakit. Pen-tsalari desberdinak daukagu ahaleginak egin dituztenak horrelako gauzak egiteko, eta semiotika edo esnahia edo mezuen aldetik ibil-itakoek ere horrelako ikuspegiak eman dizkigute. Adibidez, horien artean Foucault, Lotman edo Umberto Eco ditugu.

Hauek zer esaten digute?. Foucault-ek berak egin zuena zera zen. Adibidez, erotasunaren kontzeptua aztertzea, noiztik daukagun eroak gure artean eta gero nola instituzionalizatu egin den, eta horrek, zientzia aldetik, zer gauza dakarren.

Gauza bera egin dute Tartu-ko eskolan Soviet Batasunean. Gure artean oso interesante izango litzateke horrelako gauza bat egitea bertsolaritzan zehar. Bertsolaritza orain arte formarik gabeko zera izan da. Instituzioen barruan ez zegoen gauza bat, ez irakaskuntzan, inon ez. Txapelketak berak orain dela gutxikoak dira eta ez txapelketak bakarrik, baizik eta oraingo eskolak, ikusi ditugunak, orain dela lauzpabost urtekoak dira, gehiago ez.

Momentu hauetan bizitzen ari gara fenomeno oso "arraro" bat, bertsolaritza, hain zuzen, instituzionalizatzen ari dela. Lehen beste lekuetan pasatu dena beste gauzekin, hemen gertatzen ari da oraintxe. Horrek ematen dizkigu posibilitate pila gauza horiek aztertzeko eta ikusteko zer metodologia izango litzatekeen komenigarriena gure artean aplikatzeko. Bestela zera ikusiko genuke. Adibidez, psikologo batzuek egin dutena; nere lagun batzuek Zorroagan test Roschard pasatzea, eta erdaraz gainera, herri oso bati eta gero esatea "euskaldunok agresiboak gara edo ez gara agresiboak..." edo psikoanalisi hutsa erabiltzea hemengo problematikak aztertzeko.

Honako azterketa baten bidez posible izango genuke metodologia berezi bat esplikatzeko eta azkenean erabiltzeko. Ikusten duzuenez, honek hasiera batean ez dauka zerrikusi haundirik bertso-laritzarekin, baina gutxi gorabehera zergaitia da, zergatik anto-latu ditugun guk horrelako ihardunaldiak.

Gure asmoa zera zen: bertso-laritzaren bidez erabili izan di-ren metodologia horiek aztertzea. Bertso-laritzza bera aztertu egin beharra dago eta irakurketa berri bat egin behar da, agian desohizko irakurketa berri bat egin behar da fenomeno horietan. Orduan sortzen zaizkigu galdera pila bat eta galdera hauek erantzuteko ez dakit oraindik posibilitateak dauzkagun, baina behintzat espezialista desberdinak dauzkagu, beraz bakoitzak berea bota dezala eta denon artean ikusiko dugu ea posibilitateak dauden azkenean gauza gero zuzentzeko zentzu sakon batean edo zentzu teo-riko batean.

Gure artean teoriak oso esanahi pejoratibo izan du beti eta ematen du teorietan ibiltzea txorakeria dela. Ez dakit nork esan zuen praktikoena teoria on bat dela, baina hala eta guztiz ere, antolatu ditugunok pentsatu dugu interesante izango litzatekeela behintzat datuen bilketa bezala, azkenean behar dugun azterketa berezi hau oinarritzeko. Ondorioak ikusiko ditugu, hau hipoteisa besterik ez da.

Berriro bertso-laritzari buruz hizketan zera esango nuke. Irakurketa edo desohizko irakurketa hau egiteko. Irakurketa berri hau egiteko, galdera pila ba dauzkagula gure artean. Orain arte esan dena, agian ez dira esan gauza guztiak, baina orain arte esan dena agian ez dugu ikusiko komenigarri bezala, baina behintzat oi-narri bezala dago, eta kritikatu beharra dago.

Lehenengo gauza izango litzateke: Bertsolaritza zer da?, nahiz eta kontzeptu bezala, lehengo batean Jose Ramon-ek esaten zigun berari bost axola zaiola. Berak bertsolaritzari buruz kontzepto partikular bat daukala, berarentzako jokua edo horrela dela, berak egin nahi duena dela formalizatu bere eskolan ibiltzeko. Baina hala eta guztiz, horrelako ikerketa teoriko bat egiteko jakitea. Alde batetik, ahozko produkzioa zen. Norbaitek esan zuen bertso paperak dauzkagula, eta orduan ez ahozko produkzioa.

Lehengo batean ere Azurmendik esaten zuen: Bertsoa, zergaitik esaten dugu bertsoa?, igoal kantu esan behar genuen edo beste gauza bat; orduan, inportanteena doinua al da?. Bertsolaritzaren kontzeptoan zer sartuko genuke?, bat-bateko bertsolaritza?; bertso paperak edo norgehiagokoak?, orduan daukagu lehengo sailkapen guztiak, lehengo ezaugarri guztiak, profazadak deritzatenak, eta gudan erabilitako bertsolaritza, eta beste bertsolari moetak... horiek ez dira norgehiagokak, beste bertsolaritza moeta bat dira. Baina zergaitik dira bertsolaritza?.

Zer konparazio moetak egin ditzakegu. Atzo honek esaten zigun: Beste herri batzuetan horrelako gauzak daude, baina herri atzeratuak omen dira, orduan, ba al dago konparatzerik horrelako herriekin? nola konparatuko genuke?. Noiztik bertsolaritza?. Depende zer kontzepto daukagun. Neolitikotik, lehen esaten ziguten bezala, igoal ez dugu onartuko baina hala eta guztiz, noiztik?. Azurmendik ere artikuluxka bat dauka Jakinen eta horretaz aritu ginen lehengo batean.

Bertsolaritza gauza bat da, ikuspegi desberdinak edukiko ditugu horren barruan eta segur aski baita sailkapen desberdinak ere. Posible izango da egitea.

Doinu aldetik zer esan dezakegu?. Doinua inportanteena ba da, orduan doinu aldetik zer moeta desberdin daukagu?, eta honekin zera esan nahi dut: Doinu erdiarabiarra edo melismatiko esaten genuena eta doinu silabikoak. Ipar Europan eta Euskadin ere bertsolaritzari dagokiona horixe izan omen da: doinu silabikoa, silaba bakoitzari nota bat. Baina Karlo Magno-ren garaian doinu melismatikoa etorri da behetik edo hego aldetik. Azken zintetan ni behintzat behin eta berriz egon naiz melismatikoak entzuten. Melismatikoak agertzen dira goitik eta behetik. Baina hala eta guztiz, epai mahaikoek zer egin behar duzue?, hori gaizki juzu?. Bertsolaritza gauza bizia baldin bada, zergatitik ez sartu melismatikoak eta beti silabismoaren alde ibili?. Igoal horrekin fosi-lizatzen ari gara, eta bestea askoz politagoa da. Beste estilo bat onartu egin beharra da.

Bertsolaritzaz zer giza ulerkuntza eduki dugu orain arte?. Amurizak esaten zigun bat, azpiko errepresio horiek botatzekoa, baina hori nola oinarritu?, zer datotan?. Pixka bat azterketa erdi zientifikoa. Nola erabiliko genuke kontzepto horien onarpena. Esan nahi dut, zer baliabide edukiko genuke?... iritziak dira, baina azkenean ikerketa bera, ikertzeko zer posibilitate daukagu?

Hizkuntza formalizatua eta ez formalizatua, eta beren erlazioak. Amurizak beti esaten ziguna. Bertsotan, hizkuntza arrunt batean esaten ez dena, esan dezakegu. Oso inportantea da hori eta gainera bat-bateko bertsolaritzak zera ematen digu: Azken hitz hori bilatzeko, azken oina bilatzeko bortxatua gelditu naiz zerbait esateko. Baina, bai kuriooa dela, hori gertatzen da test projektiboetan eta hitzen testetan eta psikologoek erabiltzen dituzten horrelako probetan. Esaten dute "enfermera" eta "médico" eta abar... Igoal, inkontzientea azaltzen da bertsoen bidez, eta inkontziente pertsonala edo kolektiboa?.

Jokua. Jokua bezala esplika liteke bertsolaritza bera. Baina jokua bi zentzutan. Arauak, txapelketan nor*ki* irabazten duen ja kiteko, eta jokua*ren* zentzu dohaina, debaldeko zentzu batean. Orduan, jokua bakarrik bertsolaritza bakarti bezala, nekazaritzaren dialektika sartu baino lehenago.

Zer nolako arrazonamendu moduak?, hau baldin bada hau, hori baldin bada hori... azkenean zer daukagu?. Esan nahi dut arrazona*men*duak egiteko beti eskemak erabiltzenditugula eta bertsoetan aza*ltzen* diren eskema guzti horiek azter litezkeela. Eta nola joan go ginateke zentzu horietik?. Posible al da logika bera edo guk erabiltzen dugun logika bertsoetan aplikatzea?.

Ritualizazioa eta taldetasuna atera zen lehengo batean ere bai. Taldeak egiteko rito bat zegoen hor eta horixe izango litza*te*ke bertsolaritza bera. Hori ulertuko genuke agresibitatearen pauteketa bat bezala. Esan nahi dut agresibitatea azken momentue*taraino* ez eramateko posible izango litzatekeela taldeak beti jar tzea. Lehengo batean batek galdetu zuen: bertsolarien arteko ha*rremanak* nolakoak dira?, ona ala txarrak?. Ematen du onak direla, baina "las de dios" esaten dituzte beren artean. Oso interesantea da baita aztertzea nola erabiltzen den, nola herri txiki bat garan eta harremanak oso estuak diren eta normalki indar asko eduki du*ten*, efektibora ez pasatzeko. Esan nahi dut azken finean agresibi*tatea* hizkuntza mailan uzteko.

Mintzairaberak gizakia egiten du. Animaliek ba dauzkate po*sibilitate* guztiak gu bezala izateko baina gizakiaren ezaugarri garrantzitsuena mintzaira da eta hori erabiltzea inportantea izan go litzateke guza pila bat ageratzeko.

Guza pila dauzkagu gaurko rolloari bueltak eta bueltak emateko. Adibidez, euskara batua akademizismoen kanpotik. Jose Ramo*nek* esaten ziguna, bi posibilitate izan dira betidanik euskara

erabiltzeko: Bata apaizak, euskara normatibo edo arautegi bat egi ten zuten eta, beste bertsolariak, euskara batuaren bila ibili di rela. Baina gainera, bertsolariei beti leporatu egin diete erder- kada pila bat sartzen zutela eta egia da. Udarregi-ren garaian pen tsatzen zen oso bertsolari ona zela eradarazko hitz asko erabil- tzen zituena. Oso kurio^{so} izan zen hori, baina gaurko euskara ba tuari leporatzen diotena horixe izan da: erdarakada pila sartzen duela. Bertsolarien bidez euskara batua egiteko baina akademizis- moen kanpotik oso bide polita eduki dugu eta hori aztertzea inte- resante izango litzateke.

Beste gauza izango litzateke "sofisten" ikuspegia, egien sortzailea. Azkenean bertsolaria zer izan da?, egiak saltzen di- tuen pertsona bat edo, lehen komentatzen genuena, sofistika ikas- ten zen eta irakaskuntzaren oinarrian dago sofistika, zeren ira- kaskuntza ez bait litzateke biziko Platon-en eta horien eskolarik gabe. Eskola horiek askenean sofistika erabiltzeko ziren.

Doinuen azterketa beharra interesante izango litzateke ira- kurketa berri hau egiteko. Nik apuntatuak dauzkat hemendik gauza batzuk horretaz. Kurioso izan zen adibidez, Oñatibia-k Azkue-ren sinadurarekin azaltzen den ikuspegi batez frogatu nahi zuela gure doinuen zahartasuna, eta hori egiteko azterketa modal deritzan bat erabiltzen zuen. Baina hori ere sortzen da bertsolarien doinu^u etan, azterketa modala ere sar daiteke, eta orduan ulertuko genu- ke gure doinuak, edo gure bertsolariek erabiltzen dituzten doi- nuak ez direla hain zaharrak. Igoal orain dela mende gutxikoak. Zaharrenak hemezortzigarren mendekoak agian, zeren orain arte ho- rrelako gauzak ia emanda bezala ulertu bait ditugu eta beharbada beste irakurketa baten bidez beste gauza bat ulertuko genuke.

Bertsolaritza eta giza barruko pentsakeraren harremanak, Gauza guzti hauek desohizkoak direla ematen du, eta hala dira. Ha la eta guztiz, botata daude, nahi duenak har ditzala, eta beste

gauzez hitzegingo dugu. Jose Ramon Etxebarriak adibidez lehengo batean esaten zuen interesanteena izango litzatekeela bertsoen idazkera edo ortografia aztertzea, nola neurtu bertsoak berak eta azkenean epai mahaiaren aldetik zer gauzak erabili dituzten jakin eta orduan guk ere zer esango genuke hemendik horretaz?.

Ikuspegi pila dauzkagu. Nik bota ditufanak zera izan dira. Igoal txorakeri erotasun bat, baina azkenean beste ikuspegi bat. Horretaz hitzegin nahi badugu, orain denok posibilitatea daukagu, eta hitza eskatu ondoren denok denbora hartuko dugu hori egiteko. Hori ez ba da, beste gauzez hitzegingo dugu eta gero etxe aldera. Denbora gozo pasa ondoren ez dago ezer esan beharrik. Orduan, ne-reak bota ditut, eta horretaz ez daukat, oraindik behintzat, gehiago esateko. Nahi duzunean eta nahi duenak parte har dezala.

Galdera.- Lehengao aipatu duzu apaizek egin dutela lan bat. Bertsolari bizkaitarrek honera etortzen direnean giputzez hitzegiten dute; Bizkaian bertan daudenean nik uste dut gehiago bizkaieraz hitzegiten dutela, normala bezala, eta inoiz Iparraldekoekin eta gure artean zenabit problema izan dira. Ni gogoratzen naiz Xalbador-ek, orain dela hamabi bat urte, bertso bat bota, ez zioten on do ulertu, gero erantzuna oso polita izan zen. Nik esango nuke inoiz, ez askotan baina, hemengo bertsolariak Zuberora joaten direnean horrelako problemak izango dira?. Ulertzeko problemak. Beharbada, Zuberora izango da zailena.

Xabier Amuriza.- Bai horixe. Zuberora bakarrik joan beharrik ez dago. Gipuzkeraz Bizkaian eginda ere, problema hori bada-go eta Iparraldean, nik behintzat neure esperientzia kontatzeko eta besteekin ere askotan komentatu dugu, erdi galdurik ibiltzen gara gehienez herriaren aurrean, herriaren aurrean bertsoan egin behar dugunean. Zergaitik?. Bertsoek dituzten mekanismoak

eta guk dauzkagun funtzionamenduak, azken puntua, azken hitza eta abar... Sekula ez gaude segur erabiliko dugun hitz hori edo arrazonomendu hori, edo esaera hori hangoek ulertuko duten eta horretarako segurantza osorik ez daukagu inoiz.

Zerbait dakienak edo ahal duenak edo bertsolariak lehenbizi bilatzen duena da aurrean dagoenak ulertu diezaiola. Ikasleen aurrean kantatzen bada beste maila bat izaten da, baina herri soila biltzen denean bertsolariak frakaso handia ateratzen du berekiko, ulertzen ez badiote.

Iparraldean batez ere erdara diferenteetatik hartu ditugun hitzak asko direlako, eta oso inportanteak direlako bertsoan era biltzen direnak, guk hemen oso normalki eta ustegabeen bota eta jendeak oso ondo asimilatzen dituenak, hau bota eta ez duzu erreak ziorik somatzen. Hori badakigu zergaitik den. Orduan, hori oso inportantea da eta ez bakarrik Zuberoan. Iparraldean ni neu aurkitzen naiz beti kontuz azkenengo puntua, eta azkenengo hitza... eta baldin badakit hitz bat ez dela segurua, ez banago ziur han badaki tela, hitz horiek ebitatu egingo ditut. Eta baldin badakit hitz batzuk badaudela seguruak hortara joko dut, baina hori inprobisazioan, bat-batean guztiz erreflejoki eramaterik ez dago eta orduan normalki gertatzen zaigu hemengo bertsolariok ez dugula sortzen hangoek sortzen duten bezalako horrelakorik.

Adibide bat jartzeko, hemen lapurra esaten badugu, horrek daukan konotazioa badakizue zer den: lapurra, lapurtu. Bueno, ba han toki askotan lapurra esan eta uhu egitea berdin da, ez bait dakite hori.

Gu ohiturik baldin bagaude lapurra hitzaren konparazioak eta hori egitera, eta ateratzen bazaigu normalki... frustrazioa dator. Hori euskalkien problema da. Oso problema sakona. Bertsolariak konponduko balu ere, herriak oraindik hizkuntza horiek, euskalkiak oso banaturik dauden bitartean, ez ditu oso ondo uler-

tzen. Bat-Batean herriari zuzenki botatzea oso problema handia da, baina ez da bertsolaritzak herriarekin duen harremanaren problemam, euskararen eta euskalkien problema baizik, eta oso zaila da.

Zuk esan duzu bizkaitarrok gipuzkeraz, eta hori...?, hurbiltzen garenean zarbait, eta abar... pixka bat ikusten dugu ibiltzen garelara horrela baina bestela hemen Gipuzkoan bizkaieraz egin go bagenu, beharbada antzera gertatuko litzateke, eta gipuzkeraz herri txikietan eginda ere, urrutasun berdina geratzen da.

Gutxienez bertsolariak egin duena hizkuntza batuaren alde izan da, euskalki beraren barruan, euskalkiaren barruan bai. Oraindik euskalkitik euskalkira salto gutxi eman du. Norbaitzuk, alfabetaturik... baina ez dago hori bertsolaritza osoari eskatzerik. Idazten dedikatzen garenok zerbait gehiago jakiten dugu, handik, hemendik, hortik... eta dudan dagoen lekuan ni batuaz egiten saiatzen naiz, baina Nafarroan ere ni nahiko horrela ibiltzen naiz.

Oso inportantea da euskalki baten barruan, Gipuzkeraz badira herri eta herrialde asko oso desberdinak. Orduan bertsolariak hor kantatzen duenean eta Goierrin eta abar... nahiz eta euskalki baten barruan ibili, edukiko du antena beti zorrotz eta problemarik ez edukitzeko, zer egingo du?. Ahal denik osoen hitzak esan lokalismoak ebitatuz. Beraz, euskalkien barruan hori oso egia izan da. Euskalkitik euskalkira problema handiak dauzkagu.

Xabier Amuriza.- Zerbait antolatzeko edo eramateko, honek esan dituen gauzetatik zerbait bakoitzak komentario bat egiteko edo abar, zerbait esan eta gero galdetu, edo horrela... bestela igoa geldituko gara hemen ataskaturik...

Etxezarreta, J.M.- Nik esango nuke honek esan duen instituzionalizatzeko horretaz hauxe: Ikusten dugula bertsolaritza Txirritarekin sagardoregietan aurkitzen dela eta Txirritaren ondoren Basarri eta Uztapide datoz; eta beste maila batean jartzen Instituzionalizatu gabe. Baina behintzat antzerkietara, eleizara, plaza hobeagoetara eta... aldatzen da bertsolaritza. Baina orain dela bost edo zortzi urte beste aldaketa berezi bat dauka. Ez dakigu Txapelketengatik izango den, edo zergaitik izango den... Nik uste dut gizartea aldatzen ari delako.

Orain, ez dakit peligerosoa ezango den edo alderdi onak izango dituen instituzionalizatzeko honek. Unibertsitatean sartzen ari da eskola askotan sartzen ari da, instituzioetan, eta ez dakit ondoren onak ekarriko dituen edo ondoren txarrak. Batzuen iritzian askoz hobeago izango litzateke oraindik bertsolaritza ez jartzea hain lotua, pixka bat lehengo erara uztea; hemen gai jartzailearekin dena instituzionalizatuta, dena programatuta dago... eta programak berdintsuak dira, bata besteari kopiatua eta dena aurrez pentsatua. Ez dela lehengo askatasun hura bertsolarietan... joan udaletxeko balkoira eta gairik jarri gabe, askatasun batean, edozein gaitan jardutzea.

Ez dakit, hori zuen galdera izango litzateke, ondoren onak ekarriko dituen edo kalte handiak ekarriko dituen instituzionalizatzeko horrek?.

Jose Ramon Etxebarria.- Hemen bakoitzak bere problematxoak agertzen ditu. Nik oso ondo ikusten dut, Fito-k esan duen bezala, aztertu egin behar dela bertsolaritzaren historia, eta eman diren mila alderdi pedagogikoak, irakaskuntzarekin zerrikusi dutenak, eta abar... ondo dago. Horixe da bertsolaritza atzerantz begiratzeari aztertu behar den gauza bat. Nire ustez hori oso ondo dago, baina konkretuki nire kezka hori baina haundiagoa da. Geroari begira zer pauso eman behar ditugun. Eta batek ez du bestea kentzen,

zer esanik ez.

Horregatik, nik planteatzen nituen problemak gaur eguneko problema batzu ziren, guk ditugunak, Juanitok eta biok. Lehengo egunean hemen aztertu genuen gaia izan zen irakaskuntzarekin lotu rik, bai pertsona nagusi edo helduen irakaskuntzan bertsolaritzak dauzkan elementu pedagogikoak, eta gero Juanitok ikastolan gaur egunean bertsolaritzak daukan zer egina. Horrek kezkatzen nau ni.

Horregatik planteatzen nuen, esate baterako, horrelako gauza sinplea: bertsoen idazkera. Begira, zelako gauza sinple. Baina hor mila idazkera desberdin daude eta ba dira batzu nahiko finkatuak daudenak. Juanitok bere liburuan bide bat hartu zuen. Xabierrek azkenengo bertso batzutan diptongoari buruz eta bestelako gauza batzuri buruz, eritzi batzu dauzka; guk eskolan bestelako eritzi batzuk erabiltzenditugu. Beraz, horiek gauza konkretuak dira.

Nik beti esaten dudana, eta horrelako gauza konkretuetaz, egin behar duguna dela lanean dabilen jendea batu, eta nik ez dakit lehen proposatu ziren, edo eskatu ziren, edo eskaini ziren moduko kongresuak edo nahi duzuna deitu, baina ados geratu, ahal bada, idazteko modu batetan. Arrazoiak emanez, elkarrekin eztabaidatuz. Horixe da.

Aprobetxatu egingo dut mahai inguru hau. Hemen ba daude pertsona batzuk, bai inguru horretan dabiltzanak, kezka hori aurrera eramateko. Nik ez dakit horrela konpondu ahal izango den, nor den, edo zer erakunde den horrelako batzar batetara deitzeko gai dena. Nik uste dut arazoa latza dela. Liburuak ateratzen ari gara gaur egunean, eta zelan idatzi behar ditugun ez badakigu... hor problema bat dago. Eta uste dut problema hori errez konpon daitekeela, nahi izanez gero. Alde horretatik zijoan nire kezka.

Xabier Amuriza.- Beharbada, pelota urrunegi joan aurretik, Izazpik esan duenari buruz bi hitz erantsi nahi niskoike, txapelketak eta abar... eta nola Txirritaren garaitik, Basarri eta Uzta pideren garaira, eta abar. Lehenbizi, garaitik garairako pauso ho rretan, Txirritaren garaian eta aurrekoan eta Xenpelarren garaian eta abar... hau da, gerra aurretik gerra ondora.

Alde batetik hik esan duana egia duk. Basarrik eta Uztapi-dek ekarri zuten beste irudi bat, sagardotegietatik kanpo eta abar, bat-bateko bertsogintzan. Baina gerra ondoan bertsolaritzaren pobrekuntza haundia izan zen, bertso paperak eta bertso jartzailleak, tradizio hori ahuldu eta galdu egin zelako. Alde horretatik, lehendik, ez dut esango instituzionalizazio ofiziala ala ez, baina ba zegoen hor molde bat. Txirrita, Xenpelar, Udarregi, Pello Errota, den denak fama pixka bat zeukatenek, bertso paperak jartzeko grina haundiagoa zuekaten, behintzat oso haundia zeukaten eta hori gizartean oso indar haundiko korriente bat izan zen, bai herrian eta bai bertsolariengan.

Gerra ondoan, ba dakizkigun motibo askoengatik, bertsolaritza, bat-batekoa eta dena nahiko enterraturik izan zen. Garai horretan, gero berriz berritzen hasi zen, dena galdu zen eta dena zegoen enterraturik, bertsolariengan oso normala izan da bat-bateko bertsolaritza lantzea eta bat-batean bertsolari haundiak izatea eta horiek sekulan edo oso gutxitan bertso paperak egiten jartzea. Orduan hor galtze bat, galera bat izan da. Orain nik uste dut errekuperatzen ari garela berriz. Aldizkari eta horrelakoetan bertso jartzailleak ziren baina ez ziren bat-bateko bertsolariak: Zeruko Argian, lehengo Zeruko Argian, orain Argian, Anaitasunan eta abar. Bertso jarriak etortzen ziren baina ez ziren plazarik plaza zebiltzen bertsolariak gehienez. Horiek ez zuten bertsorik jartzen, ez genuen bertsorik jartzen.

Alde horretatik uste dut tradizio bat gerrak irentsi zuela, nahiko arriskuan jarri duela eta orain berriz errekuperatzen ari garela.

Txapelketari buruz esan duzuna bi hitzetan esateko, txapelketak dituen alderdi txar, oso txarretatik at, alderdi onak ere bai ditu, da bere eskema ezartzen duela batera konturatu gabe gizarte maila guztietan eta zer guztietan. Azkenean txapelketaren eskema hori, txapelketetako gai jartzea eta abar, eta aprobate hori, mekanismo hori nagusitzen ari da eta nagusitu da eta toki guztietan jendeak normala hartzen du bertsolariak beti gai jartzaile batekin egin behar duela,edo saio bat izan behar dela lau edo sei bertsolariekin. Alde horretatik, ez bakarrik arriskua ote den, arriskua bakarrik ez, nik pertsonalki esan nahi dut aspertuta nagoela saio horiekin, aspertuta.

Zergatik?. Ez dagoelako proportziorik bertsoan librean egi teko eta binaka goazenean, edo hirunaka goazenean ere, horietan eskema hori nola sartuta dagoen, nagusitzen ari den, jende guztiak uste du bertsolariok gai jartzaile batekin egin behar dugula eta orduan nolabait esateko, beti ari gara manipulaturik. Horrek ez du esanahi despektiborik, baina bertsolaritza zati bat galtzen ari da. Aspertzen ari gara, eta ni, egia esateko, aspertuta nago. Oso saio artifizialak, ez daukate emoziorik saio artifizial horiek. Bertsolaritza, behintzat satisfazio haundia ematen duena, norberari eta herriari, nahiz eta beharbada kalidadez gutxiago iza, da motiboa dagoenean han kantatu eta bertsolariak berak atara saioa. Ez dira mekanikoki jarriak, bi bertso honi, beste bi besteari. Gainera segun gai jartzaileari nondik ematen dion bere haizea eta bere gauzak, nondik dabilen. Hala bihurtu da bertsolaritza, ez hitzaren kirol nazionala, baizik hitzaren malabarismoa. Txapelketaren eskema, hitz batez.

Nik hori ondo ikusten dut balego porzentaia bat, neurri bat, beste hura nagusi dela eta tarteka jaialdiak ere bai. Baina hori, erdaraz esaten den "circulo vicioso" edo "gurpil soroa" bihurtzen da. Programa bat egin nahi duena, ba nola beste herri batean sei bertsolariekin jaialdi bat ikusi duten, bi bakarrik ipintzea oso pobre iruditzen zaie, eta lau ipiniz gero gai jartzailea behar da. Orduan, ipintzen baditu lau edo bost edo sei, nahitaez behar da hitzain bat akuiluarekin hau eta hori esango duena.

Beste bertsolaritza hori egiteko, gehienez hiru dira nahi-koa eta bi ondo. Hiru ere ondo. Baina hortik gora gai emalea derri-gor behar da. Beraz, txapelketaren eskema horrekin naskatzen hasi-ta gaude dezente, eta txapelketakin ez daukak keitzeko motiborik, baina gero hiru urtetan zehar "run-run" horretan ibili beharra pla-zarik plaza, hori oso pobrea da.

Horregatik bertsolari asko daude, ez dugunak gogoratzen noiz egin dugun saio librean. Jakina, gu ez gara atrebitzen joaten ga-ren leku batean, norbait badator paperekin, ezer esaten. Ikusten dugu gai jartzailea sobran dagoela, baina ez gara atrebitzen. Ho-rrek, deitu ditugunak dakar bere plano. Batez ere horregatik ez gara atrebitzen, esan liteke: guk libre egingo dugu hau, baino ge-ro gaizki ateratzen bazaio edo ateratzen ez badugu?. Orduan, "zuek gu erretiratu eta gainera horrela..." entzun behar.

Azken batean, heldu beharko da momento bat zirt-zart egin beharrekoa eta zirkustantzia batzuetan, herriko jaietan, horrelako-etan, ez dakit non, zirkustantzia gehienetan esateko gai jartzaile-rik bat ere ez; bertsolaria utzi librean. Horretarako zer egin be-har da?. Bi edo hiru bakarrik eraman. Eta hori da, bestela ez dakit noiz egin beharko dugun, geu hasi beharko gara antolatzen bertso-tan egiteko.

Hori da neurtu beharrekoa. Zerk ekarri du hori?. Txapelketak ekarri du hori. Txapelketari ematen zaio propaganda guztia, inportantzia guztia. Beste jaialdi horiek, sei bertsolari daude-nean, magnetofoiak eta zintak, eta egunkariak... hara joaten dira. Binaka, edo hirunaka gabiltzanean ez digute segitzen, eta hori da askoz ere inportanteagoa. Egingo balitz, baina aukera horiek gal-tzen ari zaizkigu eta horrek ematen dit kezka.

Adolfo Rodriguez Bornaetxea.- Igoal baldintza edo kausa edo atzean dagoena ez da izan edo ez litzateke izango txapelketa bera, baizik eta txapelketa jendearen eraginaren bat izango litzateke. Jendeak nahi duena horrelako gauza bat izango litzateke. Juanitok esaten zuen lehengo batean bertsolaritza komunikazio zen tzu batean ibili dela, komunikabide bezala, eta orain jendeak eskatzen diona bertsolari bati da bere eritzia, edo azkenean irten-bide bat bilatzea hainbeste problemen artean edo dauzkagun hainbeste gauzen artean. Hori ez da kasualitatez izango, baizik eta orain gauzak horrela direlako eta jendeak horrelako gauzak nahi dituelako.

Ni gogoratzen naiz azken txapelketan, Garmendia eta Peñagari-rikanori jarri zioten gaia abortoz, baina gauza bera egin zioten Gizazelaiari 16 urteekin. Gaur ez dakit entzun duzuen Euskadi Irratian notiziarioa kopletan, albisteak eman dituzte kopletan, Santa Ageda kopletan. Nik ez dakit azkenean denboraren poderioz hori azaldu den edo horien kontra ibiltzea buelta edo atzeratzea edo lehengo zirkunstantzietara bueltatzea den.

Xabier Amuriza.- Jendeak eskatzen du hori, horixe dela us-te duelako eta besterik ezagutzen ez duelako. Zergatik gertatzen da hori?. Jendea enteratzen da ematen zionaz asko. Bertsozale askok badakite bertsolariak, bi edo hiru, nola egiten duten eta hori dakitenek ez dute hori ahaztuta, baina nola ematen zaion, jen-

deari jakinarazten zaion moeta bat, eta nola hori pixka bat nagusitzen den, ba gizarteak nola funtzionatzen duen nahiko kontu zaharrak dira. CocaCola ere zergatik jendeak edaten du? Gustatzen zaiolako? Hemen CocaCola zer zen ez genekien. Orduan zergatik edaten du?.

Puntu bateraino jendeak eskatzen duenean gauza bat eman behar zaio, baina ez dedila izan bestea ahaztu edo baztertu delako. Jendeak hori eskatzen baldin badu eta bertsolariek ere, behintzat nik pertsonalki, esaten dute jendeak nahi baldin badu egin dezala berak, baina nik bestea nahi dut. Bestea nahi dut %50 batean, eta hor egon behar du oreka bat.

Baina jakina, jendeak zergatik ez du beharbada hainbeste eskatzen?. Horixe, montaje hori, gizartea beste gauza askotan bezala horrela doalako eta ez delako egiten erreflexio bat. Igoal jendeak uste du "bai, egiten dute". Baina igoal herri bakoitzean urtean bi aldiz izango dira bertsolariak, eta bi aldi horietan jaialdia da eta beste hori ez du ezagutzen, ez zaio aukerarik ematen, eta ezagutzen ez badu, edo aukerarik eman ez bazaio, egarriarik ez da izaten. Igaz horrela egin zen. Baina saio bero bat, hirunen eta biren artean, ikusten dutenak horiek ez dira horretaz ahaztutzen eta gu ere ez. Orduan hori emanez gero, eskatuko lukete.

Esate baterako, azken aldi honetan bi aldiz egin dut horrela, atzo Ataunen; hantxe ere norbaitek, preso bat zetorren eta herri guztia zegoen, 500 lagun eta gero 300 lagunetako afari bat, eta hantxe ere norbaitek esan zuen: eta gaia?. Bi geunden Lopategi eta Biok, eta afal ondoan " eta gai jartzea?", "bai, gai jartzea hemen, gaia hemen dago, gaia jarrita dago!"... Ordu erdi batean egin genuen gure kontura saioa, guk atera eta ona. Gaia han zegoen, herrian zegoen... "Gai jartzea hemen?". Leitzan gertatu zitzaiguna Iparraldeko egunean. Iparraldetik etorri hainbeste jende eta giroa han zegoen lekuan, gai jartzea egin zen, eta askotan

izaten da horrela, betiko gaiak, bata dela harakina eta bestea de la ehiztaria... Iparraldeko egun batean jartzeko gai artifizia horiek? malabarismo horiek?. Gaia han zegoen.

Atzo adibidez, esan "hi, gaia hemen jarrita zegok hemen", gaia jarri behar al da?.Horrela jendeak hori ikusten ez badu, eza gutzen ez badu, ez du hori eskatzen, eta uste du hori afarrietan egiteko kontua bakarrik dela, eta ez da horrela.

Galdera.- Zenbait herritara joan eta nahiko materiala, esaten dut, herrietan saio on bat egiteko zer edo zer jakin behar al da?, ezagutu behar al da?.

Xabier Amuriza.- Hor dago beste gauza bat, beste gauza bat dago hor oso kontuan edukitzekoa eta oso inportantea: gai jartzai learen edo norbaiten lana. Gaur bertsolariok oso urruti ibiltzen ez ditugun inguruetan, eta problemak eta abar... Serioak eta txan txetakoak edo denetara igoal. Normala zen Txirrita ez ba zen mugitzen Hernani aldetik, gehiegi behintzat, ez zegoen mugitzeko modurik eta. Hark ezagutzen zuen hango ingurua. Ni etortzen banaiz Bizkaitik, etortzen baldin banaiz Goizuetara, nik beharbada Goizuetari buruz ez dakit... Nafarroko herri bat dela eta oso urruti dagoela. Heldubiderik, heldulekurik ez zait gertatzen hainbeste, baina hala ere, saiatu behar dut ikusten zer dagoen han.

Gai jartzaile batek edo norbaitek egin lezakeen mezederik haundiena zein da?. Bertsolariekin hitzegin eta komentatu: "Hi, atzo hau, ... hemen, han..." problemak. Eman horrelako heldubide batzuk, baina bertsolariei, ez han publikoaren aurrean gaia jarri eta "hemen atzo izan zen eta zezen bat galdu zen eta joan zen..." Berak esaten badu ez dago graziarik, sorpresa galdu du.

Gauza guzti horiek, bai serioak eta bai txantxetakoak, saltsa hori pixka bat jakinean jarri bertsolariak heldubidea edukitzeko. Hori oso inportantea da eta beharrezkoa. Hori gabe, jakina, ezin dugu.

Zerbait esan behar dugu denetik eta katxondeon bakarrik ezin gara etorri eta zerbait esan ere egin behar da, jendea ez bait da orain dibertitzeko bakarrik egoten bertsolariak entzuten. Baina gauza guzti hori, informazio hori hartuta, bertsolarien lana da, eta beti sorpresa hori ematen joan publikoari.

Baina jartzen baduzu gai guzti honekin, herriko batek esaten badizu: "Atzo hemen zezen bat horrela, gero bart hemen goizaldean... erretiratu dira ez dakit nortzuk, horiei bi bertso...". Orduan, sorpresa guztia kentzen diozu. Guzti hori aurretik norbaitek ematen badio, orduan bai ateratzen dela ondo. Eta jendeak esango dio: "Koño, honek!". Jendeak ez daki hurrengoak nola aterako duen. Horixe da. Bat-bateko saioaren inprobizazioaren grazia, gatza. Baina norbaitek jartzen badu hau aurretik, makina elektronikoa bezala, botoi bati eman eta horixe kontatu: "zezen bat geldu zen", zer da grazia?. Zezen batek alde egin zuela esatea aurretik ala horixe bera, jendeak espero ez duela?. Igoal bertsolari bategen aipatu du ez dakit zer, zerbait herrikoa eta hurrengoan handik hartu eta zezenarengana eramane du eta jendeak nola ezagutzen duen... parrez. Hau da sorpresa.

Hori, orduan, oso inportantea da eta hori ematen ez digutenean, eskatu egiten dugu: "hemen, jaiak nola doaz?... eta atzo?... eta gaur...?". Pixka bat heldubidea eduki eta zerbait kantatzea bereziki: "eskola bat egin dugu, dirua falta dugu... manifestazio bat izan zen atzo". Gauza serioak, politika aldetik: "ba hau jartzea komeni da...", eta katxondeozkoak ere bai: "Koño! hemen izan da saltsa pixka bat". Hori hamar minututan, edo bost minututan ematen dizkigu horrelako heldubide batzuk eta gero utzi. Hark ez

dauka publikoan agertu beharrik.

Gehien batez egin lezakeena da publikoan presentazio bat egin eta sujeritu bakarrik. Bide batzuk eman bertsolariari bidea emateko gai honetan sartzeko. Norbaitek esan gabe, oso artifiziala gerta ez dadin. "Kofio!, Bizkaitik Goizuetara etorrita, hori no la sartu duk hor?". Ematen ez bazaio biderik, hortara sartzeko bi dea ondo edukitzeko modurik ez bazaio ematen, igoal arraro egin liteke eta gainera inpresio txarra eman.

Galdera.- Uztapide, Basarri eta horrela... aurretik joan, hamaiketakoan bilduta jendea eta gero bertsoak ateratzeko beste askoz errezagoa izango al zen?.

Xabier Amuriza.- Batez ere segurantza psikologiko bat. Herriari bertsoak kantatzeko ez bait da berdin Goizuetan kantatzea edo Bizkaiko Mendexan kantatzea. Berdintsuak izango dira gauza ba tzuk baina... Alde horretatik bai, baina batez ere gaur zirkustan zia asko aldatu dira, jendeak ez duelako bakarrik dibertitzeko eramaten bertsolaria eta zerbait gehiago eskatzen zaio, edo herri ko problemak direla, edo hauzokoak edo ingurukoak edo politikoak ... denak horrelakoak. Horretaz jabetasuna eduki behar du bertso-lariak. Bestela, egoera generala ba dakigu... Felipe Gonzalez, Fe lipe izango da hemen, Mendexan eta Goizuetan. Baina izan liteke nahi dituztenak aipatzea edo zerbait.

Nola hori?. Guk badakigu jendeak, batzuek behintzat, eskatzen duena. Orduan, segurantza pixka bat eduki behar dugu. Jen-deak zer nahi duen edo zer dagoen hor.

Gertatzen dena dibertsiotzat nagusiki hartzen dela bertsolari-ritza eta orduan ez dago hainbeste problemarik, nahiz eta oso komeni den saltsa pixka bat jakitea. hari jotzeko eta besteari jo-

tzeko. Dibertsio mailan denean ez da problema konfliktibo haundirik sortzen, baina zu joaten bazara herri batera eta ez bazaude pixka bat enteratuta, han talde bat egon bada, eta bezperan ez da kit zer, nahiko gauza inportantea... eta zuk aipatu ere egin ez baduzu jendea haserretu egiten zaizu. Edo aldrebes aipatzen baduzu... Hori nork egin behar du?. Herriko norbaitek informazio hori eman behar dio bertsolariari.

Galdera.- Beste galdera bat. Bertsolarien txapelketan epai mahaiakoek ondo ulertzen diete beste aldeko bertsolariei?

Etxezarreta, J.M.- Hor ibili diren bertsolariak, gehienak behintzat, nik uste dut gehien bat ulertzen dugula, eta batez ere, betiegoten dira bi edo hiru juraduan beste aldekoak, askoz hobeto ulertzen dutenak. Hitz bat ulertzen ez baduzu galdetzeko modua daukazu. Asko ibiltzen bazara txapelketetan nahiz eta hitz bat ondo ez ulertu, bertsoa ondo uler liteke. Azkeneko hitza ez bada, horrelakoren bat ez bada, askotan hitz bat galdu arren, nik uste dut bertso bat juzga litekeela.

Gero, Xabier esaten ari zenari nik haxe ikusten diot, arrazoi guztia duela, lotzen lotzen ari garela gauza guztiak eta askatasun pixka bat eskatzen dutela bertsolariek. Normala. Herrietan, batez ere herri txiki hauetan joaten direnean ez da gai jartzailerik behar. Erdizka egingo balitz, hiri haundietan edo herri haundietan gai jartzaile bat edo... baina nik uste dut toki askotan ez dagoela gai jartzaile beharrik.

Xabier Amuriza.- Hor proportzioa izaten da zailena. Jaialdiak onak izaten direla motibo batzuegatik, eta jende pila bildu eta edertasun bat agertzen dela... hor dudarik ez dago. Jaialdi batzuk oso beroak izaten dira eta ondo ateratzen dira. Hor proportzio kontua dago.

Jaialdia beti pixka bat txapelketaren eskemaren antzekoa da. Baina bestea beste gauza bat da, proportzioa gora beheran dago. Zer proportzio?. Numero batzuk botatzeko, zenbaki batzuk... "Hi, zenbat aldiz nahi nuke jaialdi modu horretan kantatzea?" %20 urte guztian zehar nahiko, eta beste guztia beste erara. Horrelako proportzio bat, edo % hogeitamar. Baina inola ere ez erdia baino gehiago jaialdi horietan, jaialdi programatu horietan. Bestek eduki behar ditugu gehiago. Proportzioa % hogeitamar, % hogei oso ondo egongo litzateke, gauza desberdina izango bait litzateke.

Gero, hik esan duana da nola jendeak eta abar. Horrek gizar tean oso esplikazio erreza dauka. Alde batetik txapelketaren eragina eta abar... irudi hori, eta jaialdi horiek daukaten garrantzia. Irratietan binaka egiten diren saio horiek ez ditutu sekulan entzun beti bestek. Hori akumulatzen ari duk, ideia hori. Baina zer gertatzen da?. Irratian lan egin duen batek zinta bat betetzeko dauka ordu eta erdi batean. Bi bakarrik daudenean joan behar du igoal Goizuetara eta han egon beharko du egun osoan, saio ateratzen zaien eta ez zaien.... Ba segitzen badu beharbada harrapatuko du saio antologiko bat, bestela inoiz harrapatuko ez duena. Baina klaro!, han egin behar du erbiari ikusi gabe itxoin eta ateratzen denan... Zinta betetzeko probabilitate gutxiago, bait daki gainera horrela jasotakoak ez direla zuzenki irratian emateko modukoak.

Jartzen badira molde batzuk hura zuzenki irratira eramateko moduan dago. Baina, adibidez, atzo Ataunen egin genuena ezin da irratian osorik eman. Zergatik?. Gauza batzuk horrelakoak.... ken du zera... beste gauza bat da hori. Hori akumulatzen ari da. Irratietan ez duzu entzungo binaka bi bertsoarikordur laurden batean jo eta fuego egin dutena, ez duzu entzungo. Zergatik? ez dutelako hartzen.

Zergatik ez dute hartzen?. Normala. Zinta betetzeko onena ordua, ordu eta erdia pasatu, eta zinta bete beterik etxera. Ipi-
ni irratian martxan eta hura... Bale!. Bi joaten badira igoal ez
duzu momentu onik harrapatzen. Arriskua dago eta gehien harrapatu
ta ere igoal ordu lauden bat ekartzen duzu bueltan.

Adolfo Rodriguez Bornaetxea.- Ez zekiat, hik esaten duana
da, behintzat, naturalago izan behar duela, bertsolariak egiten
dituzten gauza guztiak, baina igoal gaur horrelako gauzak egiten
dituztenak, hauek dira, adibidez, santutxukoak... Poteo euskal-
dun horietan. Joan hortik horrelako gauzak botatzen nahi duten
eraz. Baina horrek ez du ematen naturaltasunarengatik egiten dute
nik, baizik eta oso pentsaturik eta badakite zergatik egiten du-
ten. Hori izango litzateke herri osoa oso euskalduna izango ba-
litz, baina zeharo alderantzizkoa omen duk.

Jose Ramon Etxebarria.- Nik esan behar dut gauza bat. Guk ez
dugu hartzen profesional bezala. Lehenengo gauza. Guk denbora pasa
egiten dugu bertsoan eta ondo pasatzen dugu, eta kitto. Hor gure
kezka ez da publikoak zer esaten duen. Guk aldrebes, gu joaten ga-
ra publikoari pelmada ematera. Ez da publikoa guregana datorrena.
Guk txikiteo euskalduna antolatzen badugu, Bilbon da, Bilboko ka-
leetan euskara entzun dadin. Gu sartzen gara tabernara baina guk ez
diogu inori abisatu bertara joango garenik. Kantatu egiten dugu
eta kitto. Altabozarekin eta guztiz, megafono batekin eta ez da
ezer pasatzen. Hau da, beste mentalitate bat dela.

Guztiz ados nago Xabierrekin. Jakin behar da, nire ustez,
non zagozen kantazeko orduan. Jaia bada, ume bat egongo da jola-
sean aurretik eta beste bat ez dakit zertan. Eta hortxe kantatu
behar da plazan, eta kitto. Gainera, jaietan egoten den jendeak,
ez du sarrerarik pagatzen.

Beste mila gauza da hau, gure mentalitatea, gu profesionalak ez garelako esan nahi dut. Baina nik uste askoz alaigoa dela. Beste gauza bat da, noizean behin komeni dela ikustea zer neurri edo zer maila daukan bakoitzak, eta txapelketak ba dituela baita alde onak. Baina, lehengo egunean gogoratzen naiz Xabierrekin egon ginela Egin Egunean, eta gaia bertan zegoen. Jende guztiak bere gauzak egiten, eta bakarrik hantxe ikusten ziren gauzak kantatuz, saio oso polita atera zitekeen. Eta egia esan, lehenengo partea horrela egin genuen, gero gai bat. Baina gaia sobran, aurrean badago gaia. Beti dago gaia, hemen bertan orain gaia dago, segun nondik ikusten den.

Etxezarreta, J.M. .- Bi ikuspegi ikusten dizkiat. Herriak eskertuko du horrela egiten bada. Sei bertsolari ordaindu beharre na, hiruri edo bieri ordainduko dute eta gai jartzaileari ordaindu gabe gainera. Baina beste peligro bat ikusten dut. Gazte jendea txapeldunarekin eta beste hauekin ari zen sartzen eta pixka bat destakutzen zen bertsolaria zahar hauekin ipintzen zen eta pixka bat preparatu. Hori ikusten dut peligro handia. Xabier txapelduna da, eta txapelduna eta txapelordekoa asko ibiliko dira, baina bestela peligro handia ikusten dut gazteak hain onak ez direnak gutxi ibiltzeko.

Jose Ramon Etxebarria.- Ez da egia. Segun zer herritan eta zer nahi den. Auzoetan eta herri txikietan eta askotan ez dituzte ekartzen lehenengo mailako zerak. Mentalitate hori kendu egin behar da pixka bat, bertsolari asko daude eta leku guztietara hel daitezke. Arriskua dago. Oreka da kontua. Hori da.

Xabier Amuriza.- Nik esango dut horretaz hori egia dela. Bi edo hiru ekartzera jotzen bada, normala denez, normala da esperimentoak egiteko ez ekartzea. Hori egia da. Apur bat selektiboago izango litzateke, ez dago bueltarik, baina lehenbizi nori kalte, mezede egiten zaion ikusi aurretik, bertsolaritza bera ikusi behar dugu.

Nik ez dakit asko ibiltzeko edo gutxi ibiltzeko zer komeni den, baina bertsolaritza bera da bat-bateko gauza hori; gai jartailerik gabe; horrek ez du esan nahi lehen esan dudan informazio hori ez duenik eman behar. Hori da bertsolaritza.

Furbolean ez dakigunok aukera edukitzeko, edo gutxiago dakigunok beste futbol klase bat asmatu behar dugu, konparazio bat jarrita. Horrek badakar hik esan duan problema, egia duk hori. Nik horregatik esaten diat mila modu daudela, beste maila batzuetan ere egiteko eta saiatzeko eta abar. Jose Ramonek esan duena egia da. Askotan, herri askotan bertsolaririk ez da egoten, sei eramateko presuposturik ez daukatelako. Gutxiago ibiltzen direnak eta eskolakoak joaten dira auzoetara eta egiten dituzten beren rolloak eta montajeak eta beren esperimentoak. Jendeak parra, berak ere bai.

Adibide bat jartzeko, Lopategik daudan taldetxoa Gernikan. Horiek soldaduzka aurrekoak ditu gehienak, eta gaur ere Sanjuanen herri batean daude haiek. Afaria edo bazkaria eman diete, joaten dira, pixka bat prestatzen dute, asmatzen dute beren rolloa. Asekiblea da, herri hartakoek eraman ditzakete horiek. Gernika aldeko auzo guztietan ibili dira horiek eta oso pozik.

Herri askotan oraindik ez dute bertsolaririk eramaten. Zerregatik? sei eramateko ez dago debalde joaterik, eta han presupostu bat dago. Baina beste horiek eta beste asko, pozik joaten dira jantruke edo mila pezeta emanda. Aukerak horrela egin behar dira.

Gernikako aldeko hainbat herri txikietan, horietan ibiltzen dira. Deitzen dietenak, oso pozik eta berak ere bai. oso pozik. Gero horrelako herri txikietan horiek beraiek armatzen duten saltsa eta armonia eta gu baino gustoago eramaten dituzte horiek. Ez da bakarrik bertsotan egitea, eramaten duten ambientea baizik. Oso

gustora joaten dira, neska mutilak elkarrekin eta hori horrela ger
tatzen da.

Galdera.- Hemendik urte batzuetara euskaldunen kopurua haun
ditu da. Orain Ameriketara eta Ingalaterran biltzen dira 100.000 la
gun, dela folck musika edo rock edo ez dakit zer... horrelako zer
bait, adibidez San Mamesen, 50.000 lagun bertsoak entzuteko. Zela
ko eskemak izango lirateke!.

Xabier Amuriza.- Hori oso posible ikusten dut zuk esaten du
zuna, 50.000 lagun biltzea. Txapelketan badakigu, Baldan egon zi-
renez aparte, irratitik zintzilik, denak, egon ziren guztia leku
batean biltzea izan balitz, zuk esaten duzun zenbaki hori ez zen
igoal oso urruti ibiliko.

Hemen dago proportzioaren gora behera eta zuk esaten duzuna,
bi bertsolarien artean hainbeste jende biltzea, igoal desafioa
baldin balitz, gehiago ere bai. Lehen ere horrela biltzen ziren
eta. Hortik aparte, bi bertsolarik ez daukate beharbada espektaku
lo osoa eman beharrik, baina 50.000 lagun beste zerbaiterako bil-
tzen badira, han bertsolariek kantatzea. Amerika aipatu duzuenez
gero, nik ez dut izan joateko suerterik, baina Ameriketara bi al-
diz edo hiru aldiz joan dira Lopategi eta Azpillaga, eta Lazkano
ere bai joan zen. Han euskaldunak biltzen dira Uztailaren lauan
Elcon behintzat, eta sei mila euskaldun biltzen dira; se mila ba-
tera guk ez ditugu inoiz ikusten. Baina biltzen dira urtean behin
ez bertsolariak entzuteko bakarrik, gauza asko egiteko eta egun
pasa eta horrela egiteko. Beste gauza askoren artean bi bertsola-
rik han horrela kantatzeko.

50.000 beste gabe bertsoak entzutera biltzeko izan behar du
desafia bat edo txapelketa edo abar... Baina jendea beste gauza
askotarako ere biltzen da eta bertsolarien eginkizunetariko bat

han tartean ordu laurden bertsolaria kantatu, eta orduan bai. 50.000 lagun egon, beste motibo batengatik bildu badira ere. Esate baterako Ukoilan AEK-an padan saio bat izan zen. Han jendea bildu baldin bazen, modu honetara egitea ez zegoen gaizki. Ordu erdian bizi bizi eta jo eta su. Hainbeste jenderi ez daukazu daitzerik bertsoak entzuteko, desafioa edo txapelketa ez baldin bada.

Jose Ramon Etxebarria.- Eta "Bai Eiskarari" izan zenean kantatu zen San Mamesen.

Xabier Amuriza.- San Mames bete beterik zegoen. Bik kantatu genuen baina hara ez zen jendea joan guri bakarrik entzuteko. Hori da pixka bat aldatu behar dena. Bertsolaria ez da beste gabe gauza batzuetan bai baina beste gabe bertsoa entzutzera jendea ekartzeko, espektakulo bihurtzeko, baizik dagoen lekuan, beste zirkustantietan motibo haundi batzuk aprobeztatuz, han kantatzeko hark ere; beste gauza batzuen artean hark ere. Motiboa han dago eta bertsolaria kantatzen du jendea bildu den horretarako gaia, eta hura kantatzen du eta hura interpretatzen du.

Saioetan zer gertatzen da?. Motiboa jendea biltzeko dela. Bertsoak entzutera joatea. Beste motiborik ez badago, zerbait haunditu eta eman behar zaio horri, horrelako jantzitasun bat. Jendea mila gauzetarako biltzen da, gutxi edo asko, eta gauza horietan, aukera horietan bertsolaria kanta lezake. esan duzun bezala San Mamesen "Bai Euskarari" bildu zenean han kantatzea justua zen. Han ez zen behar gai jartzailerik, han zegoen gaia. Ordu laurdeneko interbentzioa, ordu erdikoa eta jendea oso gustora; hori da apur bat errekuperatu beharra dagoena. Ez da errekuperatu behar dena, badago, baina pixka bat eskema horiek baztertze arriskua dauka funtzionamendu horrek.

Nik hemen. Zurmendi dagoenez gero, maiz eztabaidatxo bat ere eduki dugu, eta nik galderatxo bat egin behar diot, honek historiaz hainbat daki eta. Egun batean gogoratzen haiz nola eztabaidatzen genuen, nik nere ustez, bertsolaria, irudi edo figura hori ez dela hain zaharra. Inprobisatzea, bat-batekotasuna oso zaharra da, baina inprobisatzeko modu asko daude eta euskaraz ere izan dira: textulatia, bertsolaria, koplaria eta abar. Nik seguru kasik esango nuke, hipotesizat, ezin dut probatu, XVI. mendean ez zekite lala bertsolaria zer zen, gaur daukagun ideia hori. Hori eztabaidatzen ibili ginen eta Azurmendik kontra egin zidan. Nik galdeztzen diot zerbait argitasunik, bestela argitasunik ez dudan bitartean, neri demostratu egin behar zait XVI. mendean bertsolaria badela, bezela, orduan jakingo zutela.

Noiz sortu zen?. Inprobisatu egiten zen baina ez oraingo eskema eta Fernando Amezketarraren eta Xenpelarren eskema horretan. Ba al da argitasunik?.

Jose Azurmendi.- Justu horretaz aurreko eguneko hitzaldia edo nere saiotoxa hemen izan zen. Gaur ere daukat inpresioa hemen ekiboko bat dagoela. Nere ustea da bertsolaritzarik ez dagoela. Baina gaur ere ez dago. Bertsolaritzak egon dira beti, beste herri kultuetan bakarrik egongo denik. Oso kultuetan egon da, eta dago, ez hemengo bizitasunarekin, baina Bavieran bertsolaritza badago.

Xabier Amuriza.- Portugaleten ere bai.

Jose Azurmendi.- Kultu artean ezagutzen dut Baviera gutxienez. Kriterio bezala nik hartuko nuke bertsolaritzaren azterkerarako, definizio batetik partitzeak ez gaitu inora eramaten. Askoz hobe da uste dut, hartzea dato sozial bezala badagoen: zer tokitan dago?, zer leku sozialetan dago?, eta beraz, zer funtzio bete

tzen zuen?. XVI. mendean nik uste dut inprobisazioa, utz dezagun oraindik definizioaren asuntua, bertsoaren inprobisazioa gutxienez aurkitzen da eleizetan, erromerietan eta abar. Eleizan baina irakaskuntzarako: Jesukristo jaio da eta abar... edo hamar aginduak horrela eman litezke bertsoan. Gero ez XVI. mendean... bueno bai ta... gero hiletarien bertsoak daude, hau da, norbait hiltzen zenean garai hartan euskaldunek negar egitea profesionalki egiten zuten, ofizio bat zen negar egitea gauetan inor hiltzen zenean.

Sozialki beste bi maila gutxienez ezagutzen dira eta da emakume nobleak, inprobisatzen dutenak bai hiletakoan, bai gerra bat delakoan, bai senarra galdu zaionean gerran eta abar. Hau oso trobadoreen antzerakoa aurkitzen dut nik. Trobadoren artean, eta batez ere literatura araberan gehiago, Erdi Arokoan, emakume nobleak asko agertzen dira, Korteko obligazio bat bezala.

Gudari kantaria agertzen da XVI. mendean. Grezian eta Germanian aurkitzen den bezalaxe, gudaria berak kantari. Oñatiarra, hain zuzen, bat behintzat agertzen dena. Gero agertzen da klasiko enak. Ez daukagu daturik baina agertzen dira Bizkaiko Foru Zahararren Dekretoak profazafaren kontra. Profazo, lehengoan ere esaten nuen, espaiñol zaharrean profazo da "declaración de verguenza oficial", orduan, profazadak ziren "las mujeres sinverguenzas oficiales". Hauxek ziren jende ikaragarri interesante bat, emakumeak herriz herri ibiltzen zirenak, beren kinkalla saltzen eta herriko ferietan parte hartzen eta bertsoak kantatzen. Justu agertzen dira geroago bertsolaritzak edukiko dituen ezaugarri gehienak. Hau da, geroago ere ezagutuko dugu mutil bati, edo aldrebes neska bati, mutil batek utzi egin badu eta hori, bertso jartzaileari ekaritzen zaio, "Hi, jarri horri bertsoak" eta jartzen dira. "Versos de burlas" justu emakume hauek jartzen zituzten. Etortzen ziren herri batetara, Goizueta nahi baduzu, eta han bazegoen tipo inaguantable bat, eta enkargatzen zioten "Hi, egurra horri", eta egurra ematen zion. Bizkaiko jauntxoentzat ziren emakume hauek "el desastre". Foru zaharrean, 1.454, sartu zuten dekretoa hauek deserratzeko.

Hau da, nere ustez, bertsolaritza leku sozialez aztertu beha rra. Hartu datoak eta leku soziala eta aztertu bakoitza. Zer gertatu da gero?. Euskal Herria aldatu da, Trent-ko Kontzilioa egon da oso inportantea. Gero, lehen aipatu du Fitok, inportantea da XVIII. mendetik aurrera euskal gizartea, hegoaldekoa batez ere, oso aldatzen zaigu eta lehengo eguneko datu bera emango dut. Aski da herriz herri joatea eta ikustea ia udaletxe denak, ia eliza de nak, herriko plaza toki guztietan XVIII.mendekoa dugu. Hor sartzen da emigrazioaren historia, atzera bueltatzen den bigarren emigranteen, indianoen generazioa eta horrekin datorren dirua. Profazadak desagertu egiten dira denbora horretan. Bertsolari klasikoa desagertu egiten da. Zerk hartzen du lekua?. Sagardotegietako bertsolariak.

Emakumea desagertu da, baina emakume lotsagabea, lotsagabe esaten dut profazada zelako, foruan horrela esaten zutelako. Dena dela ez zuten bakarrik bertsoak kantatzen, oso ezaguna da elizaren dekretoz ez zirela denak oso santa izaten nonbait. Justu horren ondorengoan XVII.mendetik XVIII.era pasatzen garenean gure zoritxarrerako lehen dauden zazpi leku sozialetatik batek jarraitzen du, eta da sagardotegietako bertsolariak.

Sagardotegietako bertsolariak gaur beste eboluzio batzuk eduki ditu. Galdu ditu paper jartzailearena eta abar. Hori dena galduz joan da. Bildur naiz ni gaur ikaragarri indartu dela bertsolaritza sozialki, hau da, irudiz potentziatu da hori, baina leku sozialez ikaragarri galtzen ari garela hori. Horregatik da "urgente". Horren adibidea zuk esan duzu.Orain joaten zara Zegamara, ni zegamarra naiz, eta esaten duzue berriro: "gaiak hauek dira". Jarraitasuna berriro galtzera dijoa. Profazadatik sagardotegira eta gero herri aurreko inprobisatzailea bazegoen, baina lekuz eta funtzioz aldatzen da, hara bertsolaria joan eta gaia jartzen zaio. Hori bertsolaritza akademiko bat da. Nolabait salbatuta baina leku soziala galtzen ari gara.

Bertsolaritza hortik bizi zen orain arte. Gerora ere automa tak atera nahi ez baditugu, hau da, eskolan oso ondo ikasi dute nak bertsoak egiten, mekanismo guztiak, errima guztiak, guztia ikasi dituzten bertsolariak izango ditugu, hau da, konbinatzaileak baina ez kreatzaileak.

Ez dakit erantzun dizudan galdera hori. Dauzkagun XVI.mende ko datuak idatzi egin dira XVI.mendean baina datu horiek XIV.tik XVI.rako datoak dira. Beraz,esan liteke Euskal Herrian bertsolari tza egon dela jatorra, nik horrela uste dut, XIV.XVI. bitarte horretan ere eta gero jarraitu dela pobretuz. Gauza bat esan nahi dut. Leku sozialen artean oso inportantea da nola oraindik XVIII. mendean aurkitzen ditugu ez direla erabat leku sozialez aldatu.

Dato bat kurio^{so} da. Klase-analisis bat egin liteke, "lucha de clases". XVI.mendean oraindik aurkitzen dugu zaldun kantaria, bertsolaria edo inprobisatzailea, Germanian eta abar dauden bezalaxe. Hemen ere aurkitzen ditugu jauntxoak. Hemengo gerra zibil haietan egoten dira. XVIII.mendearen hasieran, zerbait aurre-ratuta ere, oraindik aurkitzen ditugu. Sekula ez dira nahastu behar emakume noble kantaria eta profazadok. Bistan da ez direla nahastu behar inoiz, eta bertso modu diferente egiten dute baita. XVIII.ean aurkitzen ditugu oraindik bertsoak egiten Marqués de Peñafiorida bat eta batez ere Lardizabal familiakoak Seguran. Aurkitzen ditugu bertsoak egiten eta gainera bariante oso kurio^{so} batekin: Pianoa joaz, inprobisatzen dute. Esan nahi du oso kulto bihurtu duela. Geroago Bilintzek egingo ditu horrelako esperim^{en}toak ere bai. Zer gertatzen da momentu horietan?. Noble hauek ez dute gerrarik egiten eta beraz, ez dituzte beren hazañak kantatzen. Ikaragarri kurio^{so} da, bertso erlijiosora pasa dira eta gero desagertu egiten da. Ez da erabat desagertzen zeren gero noble hauek jarraitzaile bezala agertzen dira. Lehenengo aldiz Bilboko frantziskotarrak agertzen dira bertso paper erlijiosoa ipiniz. Hortik

abiatzen da bertso papera. Gero pasatzen da Karlistadetan herrira edo bertsolari herrikoera, gaur bertsolari deitzen dugun horrengana.

Gero horrek hartzen du kasi informatibo baten eginkizuna, alegia, oraindik ez da periodikorik irakurtzen eta bera, bertsolariak daude, kantatzen dituztenak: eguneroko periodikoa herrietan. Hori da. Bertsolari batek jarri du: "Estropadak Donostian eta zer pasa da?... hau da... bertso paperak erosten dira. Periodikoa bihurtzen da.

Bistan da gaur ez dagoela. Gaur ere bertsolari onenak idazten du Eginen eta oso ondo, baina ez bertsoa. Leku soziala aldatu da. Bertso papera berpiztu nahi bada, nik esango nuke ez eman periodikoaren funtzio hori. Hori izan zen baina gaur beste batek askoz hobeto betetzen du hori. Gainera gaur analfabetorik ez dago, garai hartan bezala.

Xabier Amuriza.- Hik esan dituan gauza guztiak, ez eztabai-datu, baizik onartu, hik badakik. Baina galdera pixka bat gehiago zentratu nahi diat. Lehen ere horretaz, gauza guzti horretaz ados egoteagatik, nik esaten nian hori baietz. Hemen pixka bat definizioa izango litzateke "zer da bertsolaria". Hik esan duk definizioa ez, baizik leku soziala.

Nik bertsolaria esaten dudanean eta jendeak gaur bertsolaria esaten duenean badauka horrelako ideia bat, karga haundi bat ematen diona gauza bati. Hau da, noinahi, nonnahi, jendea biltzen denean lagun artean, pertsona batzuk badirela noiznahi bat-batean saio luzeak egiteko kapaz. Hori ez diat esango nik bertsolaritza denik. Hau da, bertsolariak, behintzat azken mende honetan eredu hori badauka. Hau da, mundu guztiarekin Txirritak kantatuko zuen edo ez, baina lagur artean juntatzen zenean, horrela eskatuko zitzaien beharbada noinahi zela egiteko kapaz.

XVI.mendeko batek bertsolaria esaten zuenean zer ulertuko zuen?. Zer zegoen orduan irudi sozial horretan?. Hik esan dituan emakume horiek lagun artean juntatzen zirenean jendeak horrela onartzen zuen, artzaina ardiekin dabilen bezala, bat-bateko identifikazio bezala. Noiznahi kantatzen zuten haiek ala kantatzen zuten gauza jakin batzuetan hazañak kontatzeko, nobleen etxean, hiletetan?. Hau da, koplaritzak egin duen bezala urteko egun señala tu batzuetan inprobisatu ere bai, Gabonetan, Egun Berritan, Santa Ageda. Baina hortik kanpora normala zen horrelako pertsonaje horri esatea: "Bueno, orain hasi", Eta ordu erdian kantatzea?. Hori esan nahi dut.

Ez nago ni definizioaren aurka, baina nola apur bat karga hori badaukan guregan eta bertsozaleen artean hori dela apur bat bertsolaritza gehien beharbada definitzen duena. Hori galdetzen ari naiz ni ea horrelako pertsonajerik ote zegoen.

Jose Azurmendi.- Nik bertsolaritza definitu nahiz ez badut, hala ere onartzen dut minimoen artean inprobisatua izatea. Gero bertso paperean jartzen badoa ere, dirudienez, bertso jartzaileek bertso papereak idazten dituztenek, idatzi egiten dute baina inprobisatu egiten dute. Gero beti dute aukera hitz bat edo bestea aldatzeko, baina bertsoa osoan inprobisatua izaten da baita papezkoa ere. Izaten zen.

XVI.mendetik, neri orain bururatzen zaidana, gutxienez bi datu daude. Bi emakumek hor elkarri erantzuten diote, Diego García del Oro-ren familian. Bi emakume haserretzen dira elkarren artean, historiara pasa dira bertso horiek. Bi emakume ziren, nobleak. Bat-batean elkarri erantzuten ziotenak. Bigarren ejemploa, XVI.mendetik baita ere gogoratzen dudana da lehengo egunean kontatu nuen bera: Oñatiarrak eta Leniztarrak haserretu zirenean eta gerra egin. Gerra egin zutenean, Urruzolan egin zuten, Urruzolako lekaioa. Lekaio hitza gero galdu egin da nonbait eta hitz hori han gelditu da.

Oñatiarrek irabazi zuten eta Oñatiarren buruzagia txikituta geldi tu zen, hau Garibai-k kantatzen du, baina horrelakoa izan zen poza, ze batalla bukatu eta txikitu zenean, bertan bere zaurien artean, erorita zegoen lekuan inprobisatu zuen kanta hau. Kanta hori jasota dago, zeren bere gudariek kantatu zuten.

Hau oso kurio^soa da, hain zuzen, Beabaul, hau poema germaniako bat da. Laugarren mendean hasi omen zen idazten eta IX.ean aurkitu zuen bere forma fijoa. Ejenplo berbera agertzen da, kaso berbera agertzen da. Hau gigante bat da, hemen Oñatiko buruzagia da.

Beste arrazoi bat. Neretzat erabaki hori "Horiek baino inportanteago da, zeren hauek "al fin y al cabo" bi kaso dira. Bertsolaritza agertzen denean agertzen da bertso berri izenarekin, XVIII. mendetik aurrera daukaguna, XVIII.mendearen azkenetik aurrera bertso berri izenarekin agertzen da. Esan nahi du bertso zahar bat egon zela. Hor duda gabe egon da kanbio bat, kanbio inportante bat egon da nonbait. Berri honek segur asko ez du esan nahi inprobisatua bakarrik. Segur asko esan nahi du baita XVIII. ean egon direla kanbio inportante batzuk eta galduta dauzkagunak.

Baina lehen lehenengo aldiz agertzen denean bertsolaritza da Zamakolatarrak dira lehenengoak datu dauzkagunak: "hator, hator mutil etxera..." eta hauen egileak dira, Durangoko zilargiak deituak. Zuberoan agertzen zaizkigu Beñat Margo eta abar, garai beretsuan denak. Bizkaian, Zuberoan, Gipuzkoan batez ere desarrollatu dena forma aldetik. Fernando Amezkatarra eta konpañia, bertsolari mordo bat. Toki guztietan, beraz geografikoki, Euskadi osoan agertzen zaigu lehenengo.

Zabalkunde sozial oso haundia erakusten dute datuek, hau da, apustuak eginez agertzen zaizkigu. Batek besteari desafioa egiten

dio. Forma oso desarroilatuta dago. Fernando Amezketarrek bederatzi puntukoa erabiltzen du. Dago presentzia sozial oso handi bat eta batez ere bertsoaritzaren inguruko ritual sozial horiek, ino^{ri} bertsoak jartzea, inoiz enkargoz jartzea, burlazko bertsoak jertzea, apustuak, desafioak egitea eta abar. XVIII. mendean erabat Euskadi osoan zabalduta aurkitzen da. Horrek esan nahi du mendeetako prehistoria daukala.

Datao eduki gabe ere, bertso inprobisatua XVIII. mendearen azkenetan agertzen zaigu rodaje handi baten karakteristika guzti guztiekin. Nik probatutzat emango nuke. Historian askoz proba gutxiagorekin ontzat ematen ditugu 50.000 gauza.

Xabier Amuriza.- Hik esaten dituan bertso kasu horiek, Oñatikoak eta horiek, pixka bat barrutik ezagutzen ditugunok, kasu oso gutxi dituk.

Jose Azurmendi.- Bederatzi puntukoak.

Xabier Amuriza.- Ez, ez. Oñatiko lehen esan dituan horiek, horiek inprobisatuak zirela sinisteko fede handia behar duk, eta esango diat zergatik. Historian zehar bertso asko, horrela kontabilizatu da, bertsolari haundiek inprobisatutzat bota zituztenak baina ez dituk inprobisatuak.

Nik ez dut esaten hori kasu hartan ez zenik izango, baina nola badakigun beste kasu askotan eta nola funtzionatzen dugun... eta gero inprobisatutzat agertzen dira. Orduan proba horiek, behintzat bi edo hiru kasu, emakume horiek haserretu zirenean, gelditu da momentua haserretu zirenekoa, baina horren aurretik makina bat elkarri zer esan eta zer egin... Gehiago esango diat. Gero ko desafioetan, bertsoaritzaz joaten ziren oso preparaturik. Bakoitzak bere koadrilla eramaten zuen. Horreak ez du esan nahi inprobisatu ez zutenik egin, inprobisatu ere bai.

Adibidetxo bat jartzeko. Bilintxen Domingo Kanpaña inprobi-satua izan zenik nik ez dut sinisten, kasu baterako. Zergatik? Bi lintxek mila aldiz ikusiko zuen hori, emango zituen bueltak, eta aukera heldu zitzaionean... ez dut esan ez denik izango ere, bai-na bertso asko kolatu dira inprobisatutzat. Nik dudarik ez dauka-dana badakigulako Bilintzek inprobisatu ere egiten zuela.

Normala izaten da. Ni esaten ari naiz ea hura, haerretu eta inprobisatu zuen hura kapaz izango zen ordu laurden batean egite-ko. Horixe pixka bat nahi nian. Beste aproba hori bai nahiko indar-t_usua duk. XIX.mendera etorriez gero, hori bazekiat. Fernando Ame_z ketarra oso desarroilatuta zegoen.

Jose Azurmendi.- Bistan dago ez dakit zer emakume Arrasaten haserretu bazen eta bota bazuen bertso bat, gaur daukagun textoa ez da dokumento bat. Hori lehenengo kanta entzun egin duen norbai tek kontatu egin dio norbaiti eta ez dakit noiz beste tipo bat etorri da eta jaso du eta Aja!, oso bertso politak. Herriaren aho-tik jasotako bertsoak mila barianteetan jasotzen dira. Inprobisa-tua izan balitz ere, textuak ez gaitu urrutira inoiz eramaten. Erromantzeroarekin daukagu problema hori. Dudarik gabe inprobisa-tuak dira maila haundi batetan baina elaboratuak gero. Herriak ez du sortzen, hori utopia bat da, norbaitek herrian sortzen du, bai-na herriak laboratu egiten du eta perfektzionatu.

Textuari nik ez diot inportatziarik ematen. Ematen diot in-portantzia horri, XVI.mendean informatu duen tipo bati. Hori feno-meno bakarra izan balitz, esan egingo zuen "Y aquella señora tenía el don espectacular del Espíritu Santo de poder improvisar y el país se quedó de culo". Ez, "tan campante" esaten du "y le contes-tó" y tal. Informatzeko moduan agertzen da. Tipoa ez da ezer bere-zirik informatzen ari. Egiten du: hau, hori gertatu zen. Berdin baita ere Ibarretako gizona hil zitzaionean emakume bati, "y en-

tonces contole endechas que en este país se llaman eresiak". Ordu an erderaz idazten ziren gauza guztiak, bistan da, "que se llaman eresiak en este país", beste batzuentzat idazten ari bait zen Garibai, ez euskaldunentzat, Madrilerako ari zen idazten, noble zintzo bezala.

Informazio jaso dizkigutenak, jaso dizkigute inprobisazio kasu batzuk, baina naturaltasun guztiarekin. Hori hemn erabat normala balitz bezala. Hori ez da egiten gauza ikaragarri bitxia den momentuan.

Xabier Amuriza.- Hori koplariekin ez duk horrela egiten dela ikusi. Nik bereizten diat koplaria eta bertsolaria. Ezagutu ditugu koplariak erromerietan, trikitixarekin eta albokarekin eta dultzainarekin... eta koplariak zerbait inprobisatu dute beti baina ez inprobisatzera dedikatzen zirela esateko, konparazioz beti. Koplariak erromerietan jotzen duenean, eta ez bakarrik panderoa jo baizik eta koplak zaharrak kantatu, eta tarketa obserbatu, igandero ari bait da kantatzen eta ibiltzen, obserbatu egiten du. Behar bada momentu batzuetan bertan atrebitu ere bai inprobisatzen, baina normalki koplarietzako tradizioa ez da izan inprobisatzea. Egin du guzti hori, baina hortik gero bertsolariak egiten dutenarekin konparaturik ez dago esaterik, behintzat nik ezagutu ditutu koplariak inprobisatzen, baina bat edo bi: "Hurrengoan etorriko gara", eta astean pentsatu eta jendeak uste du bertan asmatu duela. Hark ikusi du nola zebilen eta aukeraren zai dago hura botatzeko, eta danba! botatzen du. Jendeak hartzen du inprobisatutzat. Zergatik? honek bazekielako kondizio haietan etorriko zela.

Horrelakoak ezagutu ditugu. Gainera koplariak eduki dute aterik atera joateko, ia etxe guztiak ezagutzen dituzte eta non, zer, eta abar, instinto hori. Kasu batzuetan inprobisatu ere bai. Beti inprobisatzen ari zirela inpresio osoa eman. Hori koplariak

egiten du eta ezagutzen dugu hori. Bizkaian gerratik bertsolaritza ez du izan tradizio haundirik baina koplaritza bai. Koplaritza oraindik ere badago, eta indar handia dauka eta eduki behar du, eta oraindik gehiago behar luke. Ez ote da parekatzekoa koplaritzaren tradizioarekin, hik esaten duana beste bertsolaritzarekin baino.

Jose Azurmendi.- Nik uste du koplaritza indarra baduela, baina ez du izan indar bat. Nik uste dut koplaritza ezagutu dugula dekadentzian sartu eta gero, eta formulak oso elkartutak. Koplaritza utzi du kreatibo izatea neurri handi batetan, edo gehienbat dago bere esterotipoei obligatua.

Ni berriro leku sozialen eskemara nator. Honek esan nahi du koplaritza ez duela inoiz izan gaurko bertsolaritza duen inprobisazioaren kapazidade hura. Hori desarroilatu egiten diren gauzak dira. Horrek ez du ezer esan nahi, horrela ez. Bakarka inprobisatzen duenak ez du berdin inprobisatzen binaka, apustuka eta desafioka, dabilenak bezala. Nik ez dakit norainoko erreztasuna izan zuten inprobisatzaile horiek; gaurko bertsolari batekin, Amurizarekin konparatu nahi baldin badugu XVI.mendeko Ozaetako dama, seguru oso diferenteak agertzen zaizkigula. Biak inprobisatzaileak dira, baina bertsolariari ere, gaurko bertsolariari bere erreztasuna, rekurso horiek, egunero aberasten doazkio edo ibiliak erabiltzen dizkigu eta bariatzen dijoa.

Segun zer leku sozialetan, bertsolaritza bat praktikatu. Marqués de Peñafloidak ez zuen, inprobisatzen zuenean ere, ez zuen berdin inprobisatuko Fernando Amezketarrek bezala, beste leku batetan zebilelako, beste enpleo bat egiten ziolako bertsolaritari. Denak dira inprobisazioak baina hain zuzen horregatik esaten dut: bat ez dela bertsolaritza esan behar al dugu?. Ba egiten ditu bertsoak. Bertsolaritza hitza erreserbatuko al diogu gaur ezagutzen dugun bertsolari eredu honi?

Nobelak ere berdin dauzka. "Novelas de bolsillo" orain agertu dira, atzeko poltsikoan kabitzen diren nobela batzuk, izaten ziren 5 pezeta nere denboran eta orain zerbait gehiago izango dira. Nobela sariak ere badaude nobelan. "Novelas de aventuras" eta ez dakit zer. Edozein genero literariok baldin badauzka generoaren barruan espezie pila bat, bertsolaritzaren barruan zergatik ez da egongo hori?. Zergatik esan behar dugu bertsolaritzan dagoen guztia dela artzaina, lirikoa, bakarka kanatzen duena eta gero dialektikoa nekazaritzarekin hasi omen zena?. Eskema hau Manuel Lekuonarena da. Zergatik esan behar dugu bata bestearen ondo ren etorriak balira bezala?. Ez bait uste horrela izan denik. Den bora berean egon dira bi gauza horiek eta askoz gehiago ere bai egon dira.

Segun zer leku sozial eta funtzio, beraz, inprobisazio modu, baita ere modulo eta lege diferenteak egon dira. Bakarrik pobretuz joan zaigu eta gelditu zaiguna, potente gelditu zaigun bakarra daukagu hain buruetan sartuta, guk modela bakarra bihurtu dugula eta patroia beste guztia juzgatzeko eta esateko: "Hori ez da bertsolaritzaz". Zoritzarrez. Gure momentu honetatik ari gara patroiak ateratzen historia ere juzgatzeko.

Galdera.- Bertsolaritzaren etorkizuna gazteak gara, eta epe luze batera haurrak dira. Juanitok esan zuen bezala igaz 200 bertso papera sari batean aurkeztu ziren eta aurten izan dira 800. Zerbait dago hor haurren artean. Zer kontakto dago bertsolari helduen mundua eta haurren mundu horren artean. Zamora, Arkonada eta jende hau beti dago promozioa egiten, orduan, horiek bezala bertsolari helduek ezin litezke promozioa bera egin?. Hor zer lan dago?.

Juanito Dorronsoro.- Hartu emana noski badago. Zuk aipatutako datu hori Gipuzkoan eratu den Eskolarteko Gaztetxoan Txapelke-

takoa zen. Ihaz 200 inguru ziren bertso paperetan, bertsoak idazten eta aurten 800 eta gehiago presentatu dira; Bat-bateko kontuan ere gehiago. Urtetik urtera igotzen ari dela garbi dago, bai kalitatean eta bai zenbakietan, dudarik gabe.

Gaztetxo horiek gaurko bertsolari helduekin zer hartu eman dute?. Noski, hartu emana alde askotatik dute. Horiei bertso era-kusten ari zaien andereño edo maisuak, irakasleak Xabier Amurizarekin ikastaro bat egin du. Bertsolari nagusiak zenbat ikastoletara joan ere egingo dira. Ume hauek asko, edo zenbait, beren herrian egiten den jaialdian han nonbait ikusiko dituzu. Horietako askok Lazkaotxiki edo Lasarte zein den badakite. Horietako haundienak edo helduenak, 15, 16, 17 urte gaur dituztenak, hor dabil-tza zenbaitetan bertsolari haundiekin ere bertsoan, eta oso lotuak bertsolari haundiekin, ia izen propio dutenak dira: Eguski-tze, Sarasua, eta abar... oso gertuan daude bertsolari haundien mundu horretatik. Horientzat, uste dut zuk esan duzula Arkonada, idolo berdintsuak dira geurko bertsolari haundiak eta Txirrita eta Xenpelar... Lotura haundia dago herentzia aldetik, bertso zahar ugari bait dakite buruz. Hori gabe ez dago bertsolari berri-rik.

Jose Ramon Etxebarria.- Guk problema alderantziz planteatu dugu. Gaur egunean Arkonada esan duzu promozioa egiten ibiltzen dela. Gure kasuan guk joan behar izan dugu bertsolari eginengana laguntza asko eta ate asko jo ditugu, eta benetan esan behar di-zut ate guztiak zabal-zabalik egon direla eta beti lagundu digute la. Hitzaldiak direla edo klase batzu emateko dela edo azalpen ba-tzu emateko, asko lagundu digute beti.

Juanitok esan duenaz aparte, ba dakizu Mikel Mendizabal da-bilela gazteekin eta orain datorren urtetik aurrera Bizkaiko ikas-toletan Jon Lopategi hasiko da Bizkaiko Federazioko ikastola guz-

tietan bertso inguruan dabiltzan gazteengana joaten eta laguntza ematen. Hori beharbada instituzionalizatuta dago.

Hortik aparte, eskari modura gu eskola bezala bertsolari helduengana laguntza eske joan garenean, informazio eske batez ere, beti ikastaroetarako deitu izan ditugunean, bertsolari zahar-rak beti oso gustora etorri dira eta asko lagundu digute.

Adolfo Rodriguez Bornaetxea.- Nik ez dakit instituzionaliza-zioaren problema hau ikusten dugun edo horrela, baina jakin, behin-tzat jakin ere hor barruan gaudenok, jakingo dugu eta gu baita oraintxe instituzio batean gaude eta... ordua da, hori esan nahi dut.

Segur aski orain arte bezala ibiliko ginake beste gauzak ar-gitzen eta galdezka. Aste oso bat ibili gara dezente eta ongi. Nik uste dut denak oso asmo onak daramatzagula eta ez bakarrik as-moa, gogoak ere jarraitzeko hurrengo batetan. Hurrengo, arte baka-rrik gelditzen zaigu esatea.

Adolfo Rodriguez Bornaetxea

Xabier Amuriza

J.M. Etxezarreta

Juanito Dorronsoro

Jose Azurmendi

Jose Ramon Etxebarria